

**GAIA: OBRA GASTUEN ORDAINKETAK JUSTIFIKATZEKO JARRAIBIDEA ETXEBIZITZA BIRGAITZEKO EUSKO JAURLARITZAREN DIRU-LAGUNTZEN ONURADUNENTZAT**

Gutun honen bidez, eta etxebizitzan eta eraikinen birgaitzean zure partaidetza aktiboa kontuan hartuz, jakinarazi nahi dizugu **Eusko Jaurlaritzak obra gastuen ordainketak nola justifikatu behar diren azaltzeko jarraibidea bidali digula etxebizitza birgaitzeko diru-laguntzak dagozkien obretan.**

#### **ORDAINKETAK JUSTIFIKATZEA:**

Diru-laguntzen onuradun suertatzen diren pertsonak eta jabe erkidegoek egindako ordainketen egiaztatgiriak aurkeztu beharko dituzte obra amaierarekin batera. Fakturretan jasotako gastu guztiak dagokion agiriarekin batera aurkeztuko da, ordainketa formalizatu dela egiaztatzeko, bertan ondorengoak argi eta garbi adierazi behar direlarik:

- **Fakturaren igorlea:** lana egin duen enpresa edo profesionalaren izena izango da.
- **Fakturaren hartzailea:** erkidegoen obretan jabe erkidegoaren izena izango da.
- Ordaintzen ari den **fakturaren zenbakia.**
- **Ordainketaren xedea:** testu laburra ordaintzen ari dena adierazten duena.
- **Zenbatekoa:** ordaintzen ari den kopurua.
- **Ordainketa data:** ordainketa egin den data.

Transferentzien kasuan kontzeptuan fakturaren zenbakia eta ordainketaren xedea agertu beharko dira.

Horrez gain, diruz egindako ordainketetan, ordainketaren egiaztatgiriaren igorleari zenbatekoa ordaindu zaion adierazi beharko da, dagokion faktura identifikatuz.

Kanbio-letretan, txkeetan edo ordaindukoetan, horren fotokopia edo jasotze- agiria ere aurkeztuko da, ordainketa-modu hori onartzen dela egiaztatzen duena. Baita banku-mugimendua ere, hartzaileak ordaindu duela egiaztatzen duena.

Obra amaitu ondoren gauzaturiko ordainketak direnean, kontratuaren kopia ere aurkeztu beharko da, ordainketa modu hori alderdien artean adostu dela egiaztatzeko.

Argibideren bat behar izanez gero, **943 344 160** zenbakira hots egin, posta elektronikoz idatzi [birgaitzezerbitzua@oarsoaldea.eus](mailto:birgaitzezerbitzua@oarsoaldea.eus) helbidera.

Besterik gabe, jaso agur bero bat,



Xabier Sánchez  
Hiri-berriztapen eta Mugikortasun Sailaren Zuzendaria

**Oarsoaldea**